


## BEZEROEKIKO HARREMANAK



Gure helburua bezeroak negozio ereduaren bihotza izatea da. Horrela, gure bezeroen esperientzia hobereena izatea ere helburu dugu, gure dendetara bueltatzeko etorkizunean.. Lehen esan bezala, denda bai fisikoa bai online-a izango dugu. Horren arabera, harreman pertsonala eta automatizatua eskainiko ditugu.

Denda fisikoan laguntza pertsonalizatu dedikatua emango dugu, bezeroak nahi dituen zalantzak argituz eta aholkuak emanaz. Denda online-ean nahiz eta laguntza automatizatua izan, telefonoa izango dugu laguntza pertsonalizatua eman ahal izateko.

Modu berdinean, posiblea izango da dendan egon ondoren, langileekin harremanetan jarraitzea, zerbitzua ahalik eta hobereena izan ahal izateko, bezeroak nahi duen denboraz.

Gure web-gunean posiblea izango da ere berezeroarekin komunikatzea, eta laguntza eskaintzea, harreman automatizatuaren bidez. Gehitzeko, erantzungailu automatiko baten bidez ere gure zerbitzuak eskainiko ditugu.



Harremanen helburua ere merkatu-segmentuarekin harreman egokia sortzea da. Modu horretan, komunitateak eta Sorrera-kidetzak sortzeko aukera izan dezakegu, gure aktiboen produkzioarako lehengaiak lortzeko, guk egin beharreko lan kopurua murriztuz.